

Kanalak

Hurrengo pausua, gure produktua bezeroei helarazteko bide egokiena finkatzea izango litzateke, hau da, kanalen bidez, gure balio-proposamena merkatu-segmentuari iritsiaraziko genioke. Hiru kanal bereizten dira gure zerbitzuarekiko; bulegoa, webgunea eta kiroldegietan eskainitakoa.



Lehenik eta behin, gure produktua bulegoan eskainiko da, hau da, leku fisiko batean egongo ginateke, eta bezeroak etortzerazkotan, gure zerbitzu integral pertsonalizatua beraientzat eskainiko geniokegu. Hau oso toki egokia izango litzateke gure zerbitzua aurkezteko, modu honen bidez, bezeroak guregana etorriko zirelako, eta bertan ebaluatuko zirelako pertsona horren beharrak, hau da, bezerori kasu horretan komeni zaion zerbitzua eskainiko genioke. Hemen, adin guztietako pertsonen arreta bilatzen dugu, bulego batek azkenean, jendea guregana etortzea baimentzen digulako.

Nahiz eta gure zerbitzua bulegoan eskaintzen den, beste kanal bat webgunea izango litzateke. Hau da Body & Balance-k bere webgune pertsonalizatua izango du, eta hemen gure zerbitzua eskainiko da, bezero desberdinentzako. Argi dago, kanal honen bidez, jende gazteagoa bilatuko dugula, internetarekin hobeto moldatzen direlako zaharragoak direnak baino. Hemen, bideo-dei bidez eskainiko genuke gure zerbitzua, COVID-19 ak ekarri duen konfinamenduak erakutsi digun bezala, etxetik ere lana egin daiteke eta.

Azkenik, kiroldegietan (publiko zein pribatuetan) eskaintzen den zerbitzua dago. Kasu honetan, gure zerbitzu integral pertsonalizatua, kiroldegietan eskainiko genuke, eta honetan bazkide direnak gure zerbitzua izateko aukera izango zuten

Beraz, hiru modu desberdinetan eskainiko dugu gure zerbitzua, lehen aipatu dugun bezala, bulegoan, interneten eta kiroldegian aurkitu ahalko da. Hemen gure bezeroekin harreman bat egongo da, Body & Balanceko profesionalak ebaluatu beharko dugulako beraien beharrak, eta honen arabera zerbitzu pertsonalizatu egokitu bat jasoko dute. Hala ere, bezeroek ere aukeratzen dute zer zerbitzuekin kontaktu nahi duten, ez badute psikologo bat eduki nahi, ez dute ordaindu beharko. Beraiek ordainketa egin ondoren, gure zerbitzua izan ahalko dute.

Ondorioz, gure balio proposamena bezeroei helarazteko bide nagusiak, toki fisikokoa, internet bidezkoa eta polikiroldegietan eskainitakoak dira, eta uste dugun bezala, hauek dira bide egokienak guk nahi dugun merkatu segmentuarena iristeko.